

BANAKETA LANALAK

Enpresa antolatzerako garaian enpresa azpitalde ezberdinetan antolatuko dugu, enpresa guztiak bezala. Gure kasu pertsonalean zuzendaritza talde bat egongo da besteen gaitetik, ordez beste guztiak maila hierarkiko berdin batean egongo dira botere edota eskubide aldetik.

Lehenik eta behin zuzendaritza atalak izenak berak dioen bezala enpresaren zuzenbidea eta erabaki hartzea eramango du. Marketing departamentuak enpresaren eta produktuaren irudia zaintzeaz gain salmenta gehiago lortzeaz arduratuko da, publizitate kanpainak, kolaborazioak edota ekitaldi sozio merkantilak zuzendu eta antolatuz. Beste sail edo azpitalde bat administrazio eta kontabilitate saila da, administrazioa enpresaren alor ekonomikoetaz kargu izango da, enpresaren dokumentuen antolaketa eta klasifikazioaz gain enpresaren zenbakiez arduratuko den saila da, diru sarrera-irteerak eta soldatak landuko ditu. Gure azpitaldeen artean beste bat hornikuntza saila da, sail hau lehengaien (bozgorailuak, kargadoreak, adaptadoreak...) kudeaketaz, minibus egokituak eta halako beharrak asetzerako orduan ahalik eta etekin handienak lortzea produktua kalitatezko dela bermatuz bezeroei. Azkenik, giza-baliabideen sailak (GGBB) langileen egoera egokia izatea lantzen eta bermatzen du, langileen egoera pertsonalak kontuan hartuz, lan baldintza egokiak bermatuz eta abar, baita langile berriak kontratatzerako garaian esku hartzen duen sail bat da langile onenak soilik kontratatu ditzagun.

Hori guztiaz gain kontuan hartu beharrekoak dira gure enpresarentzat edo gure enpresarekin lan egiten duten beste enpresek, hauek ere beraien eskematizazio hierarkikoa baidute hauen produktu, zerbitzu edota azpitaldeen erabilera egiten bai dugu gure produktu eta zerbitzuak eskaintzeko orduan.

